



Arartekoaren 2015R-777-14 Ebazpena, 2015eko uztailaren 21ekoa. Horren bidez, Lanbideri gomendatu zaio pentsioduntzat jo ditzala "seme-alabak ardurapean edukitzeagatiko esleipena" eragin duten pertsona jakin batzuk, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2. a) artikulua xedetarako, eta berrikusi ditzala diru-sarrerak bermatzeko errenta, pentsio osagarri modalitatean, eteteko eta iraungitzeko prozedura batzuk.

Aurrekariak

1. Kexa eta kontsulta ugari jaso ditu Arartekoak (30 inguru), bai partikularren eskutik, bai elkarteen eskutik. Horietan, Lanbide 18 urteak beteta dituzten eta aitortutako % 65eko edo hortik gorako urritasuna duten pertsonen ematen ari zaien tratuarekin duten desadostasuna agertu dute. "Seme-alabak ardurapean izateagatiko esleipena" izendapena duen Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoa eragin dute aipatu pertsonen baina ez dira horren titularrak. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren (ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua) "Familiako prestazioak" IX. atalean dago erregulatuta prestazioa. Eskuarki, seme-alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazio esaten zaio.

Lanbidek pentsiodunen bizikidetz-unitatetzat jotzen ditu seme-alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioa jasotzen dutenak, **umezurtzak diren kasuetan bakar-bakarrik, bai prestazioaren titularrak direnean, bai legez ezgaituak daudelako titularrak ez direnean.**

Prestazioa eragiten duten gainerakoak ez ditu pentsio osagarri izendaturikorako eskubideduntzat jotzen, ez daudelako Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legearen 9.2. a) artikuluan sartuta.

Argitu beharra dago prestazio horretan urritasuna duen pertsona dela beti pertsona eragilea. Gurasoa da titular-onuraduna, izan ere, urritasuna duen seme edo alaba ardurapean izanik, prestazioa esleitzen baitio Gizarte Segurantzak. Bi gurasoan hiltzean, urritasun duen seme edo alabari igarotzen zaio prestazioaren titulartasuna. Une horretan, prestazioaren pertsona eragilea horren titularra ere bada. Egoera horretan, Lanbidek aitortu egiten du pentsiodun bizikidetz-unitatea. Titulartasuna urritasuna duen seme edo alabari igaro dakioke, gero ikusiko ditugun baldintza jakin batzuk betetzen badira.

Aurretik, araudi berberaren beste interpretazio irizpide batzuk zituen. 2008ko abenduaren 30eko zirkularrean, beste pentsio batzuen artean, %65etik gorako urritasuna zuen eta 23 urtetik gorakoa zen seme edo alaba ardurapean edukitzeak osatzen zuen prestazioa, urritasuna zuen pertsona zenean prestazioaren titularra. Gero, Arartekoaren esku-hartze baten ondorioz, 2011ko maiatzaren 30eko zirkularra onartu zuen Lanbidek. Azken horrek aurrekoa moldatu zuen, eta, bertan, urritasuna duen seme edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioa %65etik



gorako urritasuna duen eta 18 urtetik gorakoa den pertsonak osatuko du, bai urritasuna duen pertsona prestazioaren titularra denean, bai legez ezgaituta dagoelako titularra ez denean. Titulartasunaz hitz egiten zen arren, Lanbidek prestazioaren eragilea izatearekin parekatzen zuen. Hortaz, bi kasuak pentsioduntzat joko zirela pentsatu zuen Arartekoak, eta, horrenbestez, baita bizikidetzaren unitate berezizat ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren xedetarako. Lanbidek bat egin zuen irizpide horrekin.

Aipatu zirkularrean, honakoak zeudela pentsiodunen bizikidetzaren unitate bereziei buruzko 18/2008 Legearen 9.2. a) artikulua ezarritako aurreikuspenaren barruan balioetsi zuen Lanbidek:

- Gizarte Segurantzako sistemaren erretiro pentsioak.
- Estatuko eta beste Administrazio Publikoetako Klase Pasiboen erretiro pentsioak.
- Atzerritik jasotako zahartzaro, ezintasuneko eta alarguntzako pentsioak.
- Gizarte Segurantzako sistemaren pentsioak ordezkatzen dituzten Mutualitateen pentsioak, Pentsioen Sistema Publikoko Pentsioen Erroldan inskribaturik badago¹.
- Ezintasuneko pentsioak (Gizarte Segurantzako, Estatuko Klase Pasiboko edo beste Administrazioetako).
- Alarguntzako pentsioak (Gizarte Segurantzako, Estatuko Klase Pasiboko edo beste Administrazioetako).
- Umezurtz pentsioak, onuradunak 65 urte beteta dauzkanean.
- Familiartekoen aldeko pentsioak, onuradunak 65 urte beteta dauzkanean.
- SOVI pentsioak.
- gaixotasun edo zahartasun pentsio asistentzialak (2620/1991 Errege Dekretua).
- Gizarte-ongizateko Fondoko pentsioak.
- LISMI pentsioak (Gutxieneko Diru-sarrerak izateko Sorospeneak).

Laburbilduz, Lanbidek, hasieran, beste irizpide bat eduki zuen 18/2008 Legearen 9.2. a) artikuluan ezarritako aurreikuspenaren interpretazioan. **Irizpide horretan oinarrituta, diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izan ziren kexagileak, pentsiodun modalitatean, baina gurasoak ziren semea edo alaba ardurapean edukitzeagatik prestazioaren titularrak.** Gero, irizpidea aldatu du Lanbidek, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea edo iraungitzea erabaki du, aitortutako pentsio osagarriaren modalitatean; eta, kasu batzuetan, irizpidea aldatu aurretik jasotako diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazio ekonomikoak itzultzeko betebeharra komunikatu du.

Lanbide jarraibide berri bat eman zuen eta irizpidea aldatu zuen. Horrela, hitzez hitz interpretatu zuen 2011ko Zirkularrean testua, ez eman nahi izan zitzaien zentzuan; Lanbidek prestazioaren titulartasunean jarri zuen arreta, ez onuradunaren egoeran, ezta prestazio horren izaeran eta helburuan ere, eta **honako irizpide hau finkatu**

¹ Zehartzaroko, ezintasuneko eta alarguntzako pentsioei aplikatzen zaie.



zuen: semea edo alaba edukitzeagatiko prestazioa pentsiotzat jotzen da soil-soilik eragilea eta titularra pertsona berbera direnean, hau da, **eragileak gurasorik ez duenean**, nahiz eta anai-arrebekin bizi. Horrek onura horretatik kanpo uzten ditu aita edo ama -edo biak- dituzten pentsiodunak, nahiz eta prestazio horrek pentsio baten ezaugarri berberak dituen, geroago ikusiko dugun bezala.

2. Irizpide aldaketaren berri izatean, ofiziozko jardunbidea abiarazi zuen erakunde honek. Horren bidez, interpretazio berriarekin zuen desadostasuna helarazi zitzaion Lanbideri, bai eta seme edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioaren eragileak pentsioduntzat jotzeko aukerari buruz eta, ondorioz, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legearen 9.2. a) artikuluan sartzeari buruzko iritzia eman ere, horien urritasun mailari erreparatuta, eta baliaezintasunarengatik kotizazio gabeko pentsioa jasotzen dutenekin parekatuz.

Arartekoak, aurretik, araudiaren interpretazio horren gaineko aldeko iritzia helarazi zuen, zeinarekin, gure ustez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailak ere bat egin zuen. Ondoren, sailaren irizpide aldaketaren berri izatean, ofiziozko jardunbide hau abiarazi zen, eta bere iritzia helarazteko eskatu zitzaion Lanbideri.

Lanbidek erakunde honi emandako erantzunean, azpimarratu egin da seme edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioa prestazioa dela (eta ez pentsioa), eta seme edo alaba ardurapean duenari esleitzen zaiola (eta ez seme edo alaba eragileari).

Zera adierazi du: *“Pentsiodunaren izaera zabaldu duenean, Lanbidek, onuradunari zabaldu dio, ez kausatzaileari (ez bada legez ezgaitua dagoelako kausatzaile izatea eta ez onuradun) Eta kausatzaile eta onuradun, biak batera, guraso biak falta zaizkien umezurtzat baino ez dira.*

Gurasoak bizi direlarik, baliaezintasunagatik ordaindutakoaren arabera ez den pentsioa (eta horrek, DBE ondorioetarako, pentsiodunaren izaera) ematen da bizikidetzako unitate baten diru-sarrerak –seme-alaben ardura izateagatiko prestazioa eta mendekotasuneko beste laguntza batzuk kenduta- ez direnean iristen 21.711,55 eurotara (2 pertsonako unitatea), 30.651,60 eurotara (3koa) edo 39.591,65 eurotara (4 pertsona edo gehiagokoa).

Ordaindutakoaren arabera ez den pentsiorako eskubiderik ez dutenei, DBErako arau orokorrak aplikatzen zaizkie, diru-sarrera gisa kontuan hartu gabe (eta hortaz, guztiz bateragarri dira), seme-alaba ardurapean izateagatiko prestazioaren edo helburu jakin baterako beste laguntza batzuen zenbatekoak”.

Honakoa adieraziz amaitu du Lanbidek: *“18/2008 Legearen arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazio ekonomikoa da, beren gastuei (oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko prozesu baten ondoriozko gastuei) aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez duten bizikidetzako unitate bateko pertsonen zuzendua”.*





Gogoetak

1. Familiako prestazioak arautu dituzte Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 181-189. artikuluek. Familiako prestazioen garapena burutu zuen azaroaren 11ko 1335/2005 Errege Dekretuak. Zenbait modalitate eta berezitasun dauzka seme edo alaba edo adingabea ardurapean edukitzeagatiko familia prestazioak (kotizazio pekoa, kotizaziorik gabekoa, seme edo alabaren zaintzarengatik, familiako beste kide batzuen zaintzarengatik, hileroko sorospena, ordainketa bakarra...). Era berean, berezitasunak daude eragileei eta onuradunei dagokienean. Kasu batzuetan, gurasoak edo adopzio-hartzaileak edo hartzaileak izaten dira onuradunak, eta seme-alabak, naturalak edo adoptatutakoak, edota hartutako adingabeak izaten dira eragileak, umezurtza izatean bezala, **eta urritasunen bat duten 18 urtetik gorako pertsonen kasuan moduan, judizialki ezgaitu ez badituzte, eta jarduteko gaitasuna gordetzen badute** (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 182.2. artikulua). Lanbidek bere erantzunean adierazitakoaren kontrara, araudiak aurreikusi egin du urritasunen bat duten 18 urtetik gorako pertsonak onuradun izan daitezkeela, judizialki ezgaitu ez badituzte, eta jarduteko gaitasuna gordetzen badute. **Ebazpen honen xedea da talde hori, eta kexagile gehienak talde horretakoak dira.**

Seme edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioaren onuradunak dira pertsona horiek, eta horietako bakoitzeko, euren gurasoei edo adopzio-hartzaileei egokituko litzaizkieke, xede horretarako eskaera aurkeztu eta entzuteko izapidea eman ondoren (Gizarte Segurantzaren familiako prestazioak arautu dituen azaroaren 11ko 1335/2005 Errege Dekretuaren 10.2. artikulua). Izapide hori hainbat kasutan egin da. Eskaerak gurasoaren onspena baldin badu, Gizarte Segurantzak onartu egiten du eskatutakoa. Horrela, seme edo alaba eragilea onuradun ere bihurtzen da. **Bete egingo litzateke Lanbidek prestazio hori pentsiotzat jotzeko adierazi duen irizpidea.** Horrenbestez, Lanbiderentzat ezinbestekoa bada eragileak onuradun gisa agertzea, **aurreko legezko aurreikuspenak ezgaituta ez dagoen seme edo alabari berau eskatzea ahalbidetzen dio.**

Ezgaituta baldin badago, 40/2007 Legearen bederatzigarren xedapen osagarria hartu beharko litzateke aintzat. Honi buruzkoa da: *“asimilación de las personas que judicialmente hayan sido declaradas incapaces”*. *“A los efectos de la aplicación de la Ley General de la Seguridad Social, se entenderá que están afectadas por una discapacidad en un grado igual o superior al 65 por 100, aquellas personas que judicialmente hayan sido declaradas incapaces”*.

Legegileak familiako prestazioen barruan kokatu duen prestazioa da seme edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioa, baina, ikusiko dugun bezala, beste prestazio batzuen antzekoak diren ezaugarriak ditu; hala nola, baliaezintasunarengatik kotizazio peko edo kotizaziorik gabeko prestazioa. Aipatu ditugun kasuetan, hau da, %65eko edo hortik gorako urritasuna duen eta 18 urtetik gorakoa den pertsona izatean, bat egin dezakete eragileak eta onuradunak,





umezurtzen kasuan gertatzen den bezala. Prestazioaren erregulazioan Gizarte Segurantzaren prestazioen berezko terminoak erabiltzen dira, eragile eta onuradun terminoak, adibidez, baina urritasun egoera bat babestea da xedea. Hortaz, **garrantzitsua da horren ezaugarriak aztertzea, erabiltzen den izendapena gorabehera.**

2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko betekizuna da bizikidetza-unitatea osatzea. Bizikidetza-unitateari esleitzen zaio prestazioa, ez norbanakoari. Kontuan hartu behar da ezkontzaren bidez edo ezkontzaren harreman mota iraunkor berdintsuaren bidez lotutako pertsonekin bizi bada eskatzailea, edota adopzioaren, odolaren –laugarren mailara arte- edo ezkontza-ahaidetasunaren –bigarren mailara arte-, edo familia harrera iraunkorraren edo adopzio aurrekoaren edo zaintzakoaren bidez lotutakoekin, **bizikidetza-unitate bakarra osatzen dela, eta berau osatzen duten pertsona guztien sarrerak hartzen direla aintzat.**

Baina bizikidetza-unitatearen kontzeptua ezberdina da zahartzaroarengatik, baliaezintasunarengatik edo alarguntasunarengatik kotizazio peko edo kotizaziorik gabeko pentsioen onuradunen kasuan. Pertsona horiek bizikidetza-unitate askea osatzen dute, ezkontideari, ezkontzaren harreman mota iraunkor berdintsuaren bidez berari lotutako pertsonari eta ekonomikoki horien mende dauden pertsonen dagokienez (147/2010 Dekretuaren 5.2. a) artikulua), **eta diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eduki dezakete, beti ere, betekizunak betetzen badituzte, etxe berean bizi diren gainerako pertsonak alde batera utzirik, 147/2010 Dekretuaren 13.1. b) artikuluan aurreikusitako zenbatekoan.** Horrek pentsiodunaren bizikidetza-unitatetik kanpo uzten ditu lanarengatik diru-sarrera propioak dituzten seme-alabak, edo, bestela, diru-sarrera propioak dituzten gurasoak. Bizikidetza-unitateko kide izanik, lanik egiten ez duten edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren oinarriko zenbatekoaren berdina edo hortik beherako sarrerak, lanaren ondoriozkoak ez direnak, dituzten pertsonak dira ekonomikoki mendean dauden pertsonak (147/2010 Dekretuaren 5.2. a) artikulua).

Ondorioz, **bizikideen gainerako pertsonen diru-sarrerak kontuan ez hartzea dakar pentsiodunaren bizikidetza-unitateak, ekonomikoki horien mendekoak ez badira, ezkontidearen edo ezkontzaren harreman mota iraunkor berdintsuaren bidez berari lotutako pertsonarenak salbu.**

3. Seme edo alaba ardurapean edukitzeagatik prestazioaren kasuan, prestazioaren eragileak eta onuradunak edo titularrak diren umezurtzak baino ez dira hartzen pentsiodun bizikidetza-unitatetzat, baita, umezurtzak izatean, legez ezgaituta egoteagatik onuradunak ez direnean ere (hain zuzen, Lanbidek ez du argitu zein irizpide erabili behar den gurasoek abandonatu eta familia harrera iraunkorrean edo adopzio aurreko erregimen egoeran ez kasuan; azaroaren 11ko 1335/2005 Errege Dekretuan, ordea, 10.3. artikuluan dago kasua jasota, eta umezurtzei ematen zaien tratu berbera ematen die).

Hortaz, interpretazio horri jarraiki, pertsona horiek 147/2010 Dekretuaren 5.2. a) artikuluan aipatutako bestelako edozein seniderekin bizi badira, baina umezurtzak





izanik, pentsiodun bizikidetz-unitatetzat joko dira. **Gurasoetako edozeinekin bizi badira, ordea**, ez dira bizikidetz-unitatetzat joko, orokortzat baizik, eta kontuan hartuko dira gurasoen diru-sarrerak. Ondorio handiak dauzka bereizketa horrek. Azken kasu horretan, bizikide guztien diru-sarrerak zenbatzen direnez, seguru asko ez da baliabide gabeziari buruzko betekizuna beteko, eta, hortaz, pertsona horiek ezingo dute diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso. Bestalde, ordea, seme edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioaren eragileak, eta, hala balitz, onuradunak, pentsioduntzat jotzeak gurasoen diru-sarrerak kontuan ez hartzea ekarriko luke, baliaezintasun iraunkor osoarengatiko edo erabatekoarengatiko prestazioaren onuraduna izatean gertatzen den bezala. Kasu horietan, pentsioduntzat jotzen dira, eta ezkontidearen edo ezkontzaren harreman mota iraunkor berdintsuaren bidez berari lotutako pertsonaren eta ekonomikoki bere mende dauden pertsonen sarrerak baino ez dira kontuan hartuko.

Seme edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioaren eragileei eta onuradunei zenbateko jakinak abonatzea dakar diru-sarrerak bermatzeko errentaren pentsio osagarria jasotzeak.

Gainera, beste neurri batzuk dakartza pentsioduntzat jotzeak:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentarako sarbidea eduki dezakete, urtebeteko errolda eta bizileku eraginkorrarekin (18/2008 Legearen 16. b) artikulua, 4/2011 Legeak emandako idazketan).
- 18 urterekin eduki dezakete prestaziorako sarbidea (147/2010 Dekretuaren 9.4. artikulua).
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa handiagoa da, pentsiodunak ez diren pertsonen zenbatekoarekin alderatuta (147/2010 Dekretuaren 20.1. c) artikulua).
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren luzapen automatikoa aplikatu dakieke, berau berritzeko beharrianik izan gabe (18/2008 Legearen 23.3. artikulua).
- Ez zaie gizarteratze aktiborako hitzarmena sinatzea eskatzen (hala ere, titularrak eta bere bizikidetz-unitateko gainerako kideek berariaz bera gizarteratzeari bideratutako laguntza jasoko dute, eta, hala balitz, baita lanean txertatzeko laguntza ere, halaxe zehazten badu dagokion gizarte zerbitzuak egindako beharrianen diagnostikoak (18/2008 Legearen 15.1. artikulua).
- Lanerako eskuragarri egoteko betebeharretik salbuesten dira, lan egiteko adinean badaude (18/2008 Legearen 19.2. b) artikulua)..
- Komunitatearen aldeko lanak egiteko eskuragarri egoteko betebeharretik salbuesten dira (18/2008 Legearen 19.1. i.bis) artikulua, 4/2011 Legeak emandako idazketan).
- Etxebizitzarako prestazio osagarriko sarbidea izan dezakete (18/2008 Legearen 29. artikulua).

Baliaezintasunarengatiko kotizaziorik gabeko prestazioa jasotzen duten pertsonak aipatu osagarria jasotzen dute, eta aurreko legezko aurreikuspenak aplikatzen zaizkie, gizarte ongizateko funtsaren pentsioa jasotzen duten pertsonak bezala,





edo, bestela, baliaezintasun iraunkor oso edo erabatekoarengatiko pentsioa jasotzen dutenek bezala.

Semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioaren onuradunak, %65eko edo hortik gorako urritasuna duten 18 urtetik gorako seme edo alabak dituztenen modalitatean, **umezurtzak ez izanik**, ez dituzte pentsiodun bizikidetza-unitatetzat jotzen, egun Lanbidek aplikatzen duen irizpidearen arabera. Hortaz, ez zaizkie aurreko neurriak aplikatzen.

4. Familiako prestazioaren modalitate hori ez dago inolako sarrera mugaren mende (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 182.3. artikulua "*A efectos del reconocimiento de la condición de beneficiario, en los supuestos de hijos o menores acogidos a cargo con discapacidad, no se exigirá límite de recursos económicos*"). Era berean, baliaezintasun iraunkorrarengatiko kotizazio peko pentsioak ere ez du horrelako mugarik.

Semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioa ezin daiteke jaso aitak edo amak gizarte babeserako gainerako erregimen publikoetan ezarritako bestelako edozein prestazio berdintsu jasotzen badute. Ondorioz, ezin daiteke jaso erretiro prestazioa edo baliaezintasunagatiko kotizaziorik gabeko prestazioa jasotzen bada, ez eta azaroaren 29ko Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrak aipatutako sorospenak edo bermeak ere, gutxieneko sarrerei eta hirugarren lagunaren laguntzari buruzkoak, jasotzen badira. Lan egiteko ezgaituta dagoen eta 18 urte edo gehiago dauzkan umezurtza izateagatik zurztasun pentsioa jasotzea, ordea, bateragarria da (ekainaren 6ko 8/2005 Legea). 1335/2005 Errege Dekretuaren 30.4. artikulua aplikatuz, aldiberekotasuna gertatuko balitz, prestazioetako bat hautatu beharko da. Prestazio bateraezinen onuradunak ezberdinak balira, adostasunez egingo da hautua. Adostasunik ezean, lehentasuna emango zaio erretiro prestaziorako edo baliaezintasunagatiko kotizaziorik gabeko prestaziorako eskubideari, edo, bestela, uztailaren 21eko 45/1960 Legean erregulatutako pentsioari, edo apirilaren 7ko 13/1982 Legean ezarritako sorospen edo bermeei, gutxieneko sarrerei eta hirugarren lagunaren laguntzari buruzkoei.

Hortaz, baliaezintasunagatiko kotizaziorik gabeko prestazioa (edo erretiro prestazioa) jasotzen ez bada bakarrik jasoko da semea edo alaba edukitzeagatiko prestazioa. Kotizaziorik gabeko prestazioa jasotzeko ezin daitezke ondare muga zenbait gainditu. Hala, jasotzen diren errentak edo sarrerak, urteko kalkuluan, 5.136,60 € baino txikiagoak izan beharko dira, urtean. Gainera, zenbateko jakin batzuk baino txikiagoa izan beharko du bere bizikidetza-unitate ekonomikoko kide guztien urteko errenten edo sarreren gehiketak. Muga horiek ezberdinak izango dira pertsona kopuruaren arabera, eta gurasoekin, seme-alabekin, ezkontidearekin edota odol bidezko bigarren mailako senideekin bizi ala ez. Lanbidek bere erantzunean aipatu ditu muga horiek.

Dirudienez, Lanbidek honela interpretatzen du egintza hori: familiaren baliabideak direla eta, baliaezintasunagatiko kotizaziorik gabeko prestazioa eskuratzerik ez daukana ez dago premia egoeran. Hala ere, adierazi dugunez, 18/2008 Legearen





9.2.a) artikuluan bildutako pentsioetako askotan ez dira kontuan hartzen familiaren diru-sarrerak. Hala gertatzen da kotizaziopeko pentsio guztietan (erretirokoa, alagunarena, e.a.), besteak beste, Gizarte Segurantzaren ezgaitasunagatiko pentsioetan. Are gehiago, gerta daiteke pentsiodun horietako batzuk –balioesten bazaie- semea edo alaba edukitzeagatiko prestazioa jasotzeko eskatzen den %65eko ezgaitasun maila baino txikiagoa edo askoz txikiagoa izatea. Hala ere, hori jasotzen duena pentsioduntzat jotzen da. Pentsio horietan guztietan aintzat hartzen da zein den prestazioaren onuraduna eta azken hartzailea. Pertsona horien bizikidetasun-unitatearen muga ekonomikoa DBEren gehienezko mugak jartzen du eta, horregatik, norbaitek prestazio osagarria jasotzen badu, bere diru-sarrerak urriak direlako egiten du hori.

Lehen, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospena² esleitzen zitzaien %65eko edo hortik gorako urritasuna egiaztatzen zuten eta arrazoi horregatik lan egokirik eskuratu ezin zuten pertsonen.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartu zuen Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren hamaikagarren xedapen iragankorrak **kendu** egin zituen gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospenak eta hirugarren lagunaren laguntzak, eta **mantendu** egin zituen jada aitortuta zituzten onuradunen eskubideak, horiek erregulatzeko berariazko legerian aurreikusitako termino eta baldintzetan.

Araudiak aurreikusitakoaren arabera, aukeratu egin behar zen sorospen horien titular izan ala baliaezintasunagatiko kotizaziorik gabeko pentsioaren edo erretiro pentsioaren edo urritasuna duen semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioaren artean.

Ondorioz, gutxieneko %65eko urritasuna edukita, baina kotizaziorik gabeko prestazioa jasotzeko aipatu mugak gainditzen badira, gurasoen baliabide ekonomikoak gorabehera, semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestaziorako eskubidea dago. Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospenerako eskubidea eduki daiteke, araudiak hori mantentzea aurreikusitako kasuetan.

Lanbideren zirkularretan adierazi da, aurretik aipatu ditugun horietan, pentsio osagarriko eskubidea izango dutela gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospena jasotzen dutenek. Ez dakigu kasu horietan ere irizpidea aldatu duen ala ez.

5. Oro har, "pentsio" esaten zaie aldizkako edo iraupen zehaztua duten biziarteko prestazio ekonomikoek. Pentsioek, orokorrean, ez daukate, a priori, gehienezko iraupena mugatuta. Hala ere, salbuespenak daude; hala nola, zurtasuna, denboran mugatuta baitago, salbu eta onuraduna edozein lan egiteko ezgaituta badago, prestazioa eragin duen egitatea gertatu baino lehenagotik.

² Otsailaren 1eko 383/1984 Errege Dekretua. Horren bidez, urritasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legean aurreikusitako gizarte- eta ekonomia-prestazioen sistema berezia ezarri eta erregulatu da.



Semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazio ekonomikoa ez da pentsio izendatu, baina iraupen mugagabeko ekonomia-prestazioa da. Hortaz, ezaugarri horien arabera, pentsioen oso antzekoa da. Prestazio hori 18 urtetik gora dituzten eta %65eko edo hortik gorako urritasuna duten pertsonen esleitzea aurreikusi du legegileak, iraupen mugatua duten familiako beste prestazio batzuekin batera arautu duen arren. **Baina berezitasun handiak dauzka prestazio horrek, iraupen mugagabea adibidez, eta hobekuntza dagoenean iraungitzen da, ohikoa ez izaki.** Pertsona eragilea ezkondu arren ere, araudiak prestazioa mantentzea aurreikusi du (Gizarte Segurantzaren familiako prestazioak erregulatu dituen azaroaren 11ko 1335/2005 Errege Dekretuaren 10.4. artikulua).

Familiako prestazio modalitate horretan **urritasunen bat duen pertsona bati laguntzea** gailentzen da, izan ere, zail izango du lana aurkitzea, eta gastu jakin batzuk beharko ditu, bizitza baldintza egokiak bermatzeko. Argi eta garbi, urritasun horren iraupena mugagabea da.

Lanbideak, lehen aipaturiko irizpidea ezartzean, titulartasunean jartzen du arreta eta ez prestazioaren onuradun edo hartzailearengan, ezta ere prestazioaren izaeran eta helburuan.

Arartekoaren iritziz, urritasunen bat duten baina **umezurtzak ez diren** pertsonen pentsio osagarria ez emateko irizpideak ez dauka justifikazio objektiborik, izan ere, urritasun maila bera edo txikiagoa duten beste pertsona batzuei esleitzen zaie (eta umezurtzak izan gorabehera esleitzen zaie).

Kontua zera da, urritasun egoera elementu erabakigarritzat jotzea osagarria emateko unean, gurasoek bitarteko ekonomikoak edukitzeak horri eragin gabe, eta **gainerako pentsiodun taldeei ematen zaien tratu bera ematea**. Gizarte ongizatearen funtsaren pentsioaren onuraduna, edo ezintasun iraunkorragatiko kotizazio peko pentsioaren onuraduna, edo baliaezintasunagatiko kotizaziorik gabekoaren onuraduna, muga funtzionalak eta **lan egiteko zailtasunak dituen** pertsona da. Pentsio horietako baten onuraduna izatean, ez dira kontuan hartzen gurasoen laneko diru-sarrerak, kotizazio peko modalitateko pentsiodun izatean bezala, bai ezintasun iraunkor oso edo erabatekoarengatik, bai erretiroarengatik.

Azpimarratu nahi dugu urritasunen bat duen pertsona dagoelako esleitzen dela prestazio hori, besteren artean, lan egiteko zailtasuna baitu eta bizitza autonomoari laguntzeko gastu bereziak baititu. Beraz, antzekotasuna dago aipatzen ari garen prestazio guztien artean.

Horregatik, zentzuzkoa dirudi 18/2008 Legean tratu bera edukitzeak, eta horien eragileak pentsioduntzat jotzeak. Aipatu legearen 9.2. a) artikuluan daude pentsiodunak sartuta. Horrela izanik, kasu horretan, badirudi justifikatuta dagoela semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioa sarrera gisa zenbatzea diru-sarrerak bermatzeko errenta xederako; Lanbide pentsio osagarriak esleitzea aztertzen ari den kasuetan gertatzen ari den bezala, hau da, umezurtza denean eta





semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazio ekonomikoa jasotzen denean.

6. Lanbide eteten ari zaie diru-sarrerak bermatzeko errenta, pentsio osagarri modalitatean, aurretik aipatu prestazioa aitortuta zuten eta aipatu legearen 9.2. a) artikuluan sartuta zeuden pertsoneri. Ondorioz, administrazio jarduera bat idatzi zuen aurretik. Horren bidez, prestazioa eteteko edo iraungitzeko kontuan hartzen ari diren **egitate berberetan oinarrituta aitortzen zituen eskubideak, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 102-106. artikuluetan ezarritako prozedura aplikatu gabe.**

Zera adierazi du Justizia Auzitegi Nagusiak 2014ko martxoaren 31ko 157/2014 FJ 2.2 epaian:

"La ley autonómica 18-2008 para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social en su art. 23 reconoce el derecho a la prestación reconocida en tanto subsistan las causas que motivaron su concesión y sigan cumpliendo las condiciones para el acceso a la prestación. En principio, por lo tanto, si se mantienen las causas que dieron lugar al reconocimiento no está facultada la Administración para revisar la actuación dictada previamente. Y, de hecho, el art. 24 permite el control y revisión atendiendo a las alteraciones que se puedan ir produciendo en las razones que motivaron la concesión.

La suspensión cautelar esta prevista por el art. 27 para aquellos supuestos de indiciaria pérdida de los requisitos que dieron lugar a la prestación.

No se habilita a la administración, por lo tanto, ni en la ley autonómica, ni en su Reglamento de desarrollo aprobado el Decreto 147/2010 para revisar los errores valorativos en que ella misma haya podido incurrir respecto de los hechos en cuya virtud se reconoció la prestación. El cambio de criterio no puede por ello tener lugar, en su caso, más que a través de los procedimientos regulados en la Ley 30/1992 a que hemos aludido, esto es, los de revisión de actos administrativos que reconocen derechos".

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioak aurretik eskubidea aitortuta zuten pertsoneri eteteak eta iraungitzeak, **egoera aldaketarik egon gabe**, ez du bat egiten administrazio jarduerak ikuskatzeko ezarritako administrazio prozedurarekin. Lanbidek, era berean, jasotako prestazio ekonomikoak itzuli behar dituztela komunikatu die pertsona horietako batzuei, bidegabe jaso izanagatik horiek.

7. Urritasun maila altua duten pertsoneri eragiten dieten kontuei buruz hitz egitean, beharrezkoa da ikuspuntu zabal eta ireki batetik egitea, talde horri onura egiteko helburuarekin, Urritasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren printzipioekin eta filosofiarekin bat eginez. Nazio Batuen Bilera Orokorrak 2006ko abenduaren 13an onartu zuen hitzarmen hori, eta erabat aplikatu beharreko araua da 2008ko maiatzaren 3tik aurrera. Hortaz, Espainiako konstituzioaren 96.1.





artikuluak aurreikusitakoaren arabera, ordenamendu juridikoaren parte da. Abuztuaren 1eko 26/2011 Legeak eta irailaren 16ko 1276/2011 Errege Dekretuak egokitu dute araudia. Gainera, urritasunen bat duten pertsonen eskubideei eta horiek gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onartu duen Legegintzako azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretua aipatu dugu berariaz, 50. eta 60. artikulua bereziki, laguntza ekonomikoak aukera berdintasunerako neurri gisa ezartzea aurreikusi baitute.

Pertsonak berez duten duintasunarekiko errespetua, gizaki bakoitzaren autonomia eta independentziarekiko errespetua, bereizkeriarik eza, gizarteraren parte-hartze eta gizarteratze oso eta eraginkorra eta urritasunen bat duten pertsonak aniztasunaren adierazgarri gisa onartzea ezarri ditu hitzarmenak printzipio orokor gisa. Eskubideak dituzten subjektuak dira urritasunen bat duten pertsonak, eta gainerako herritarren aukera berdintasuna eskuratu ahal izate aldera estali behar dira beraien beharrezkoak. Ikuspuntu horretatik, baldintza multzo konplexutzat taxutu da urritasuna, eta baldintza horietako asko inguruak sortzen edo larriagotzen ditu.

Hitzarmenaren 2. eta 5. artikuluen interpretazioak, bai eta konstituzioaren 92.2., 10., 14. eta 49. artikuluen interpretazioak ere, botere publikoak bultzatzen dituzte pertsonen berdintasuna eta garapen pertsonala sustatzera, pertsona guztiek politikan, ekonomian, erlijioan, kulturean eta bizitza sozialean parte har dezaten laguntzera, pertsonen osotasuna zailtzen duten oztopoak ezabatuz eta herritar guztien irisgarritasuna erraztera, urritasunen bat duten pertsonen prebentzioaren, tratamenduaren, errehabilitazioaren eta gizarteratzearen bidez. Horren arabera, urritasunen bat duen pertsona batek ere ezin dezake murriztuta, mugatuta edo asegabe ikusi edozein eskubideren erabilera eta gozamina, baldintza beretan. **Urritasunarengatik bereizkeriarik ez jasateko eskubide** gisa eratu da exijentzia hori. Gogoan izan behar da edozein bereizkeriak eramaten duela gizarte bazterketara.

Hitzarmenak paradigma aldaketa egin du, urritasunaren arretarako gizarte eredu baterantz, giza eskubideetan oinarritutakoa. Horren ondorioz, pertsona **bere inguruarekin** jarri behar da testuinguruan, berdintasuna balioztatze aldera, eta herri-administrazioei jarduteko betebeharra txertatuko zaie, bereizkeriarik egonez gero esku-hartzeko.

Aipatu legezko markoak eman du urritasunen bat duten pertsonen eskubideak babesteko oinarri juridikoa, euren bizitzaren alderdi guztietan, bai norbanakoaren bizitzan, bai taldekoan, erabakiak hartzea sustatuz horrela, autonomia pertsonalerantz abiatzea bultzatuz, eta bereizkeriarik eza bermatuz gizarte erabat inklusiboan. Ekintza positiborako neurriak abiaraztea dakar horrek, ebazpen honen xede diren bezalakoak, urritasunen bat duten pertsonen bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean osoki parte hartzeko dituzten desabantailak saihestera edo orekatuz bideratutakoak.





Horregatik aipatu dugu [Estrategia Europea sobre Discapacidad 2010-2020](#):³ *un compromiso renovado para una Europa sin barreras*". Europako Batzordeak jarduteko zortzi eremu nagusi hauteman eta islatu ditu bertan: irisgarritasuna, parte-hartzea, berdintasuna, enplegua, hezkuntza eta trebakuntza, gizarte babesia, osasuna eta kanpoko ekintza. Gizarte babesari dagokionez, urritasunen bat duten pertsonentzako bizi-baldintza duinak bermatzea da berariazko xedea, gizarte zerbitzuetarako sarbidearen bidez, babesteko programen bidez eta **txirotasuna murrizteko programen bidez**, edo etxebizitza publikoaren programen bidez.

8. Diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatu duen 147/2010 Dekretuaren 5.4. artikulua aplikatuz, bizikidetza-unitatearen eredu berriak definitu ahal izango ditu Eusko Jaurlaritzak, bai ekimen propioz, bai beste herri-administrazio batzuen gomendioen bidez, gizartearen garapenari erreparatuta; eta, bereziki, familia ereduaren garapenari eginez so.

Urritasunen bat duten pertsona askok lan egiteko eta bizitza autonomia burutzeko zailtasunak edukitzeak eta gastu berezi jakin batzuei erantzuteko beharrezko edukitzeak justifikatzen dute bizikidetza-unitate berezi independentetzat jotzea horiek. Sarreraren arabera ez diren beste prestazio (pentsio) batzuk aurreikusi dira 18/2008 Legearen 9.2. a) artikuluan. Horregatik, prestazioaren izendapenetik harago, horren ezaugarriei eta xedeei begiratu behar diegu.

Adierazi dugun bezala, Arartekoaren iritziz, ez dago aipatu tratu desberdina emateko desberdintasun nabarmenik, eta badaude arrazoizko argudioak pentsiodunaren bizikidetza-unitate bereziarekin parekatzeko beharrezko justifikatzeko, eremu horretako eskudun sailak, hasiera batean, 2008ko abenduaren 30eko eta 2011ko maiatzaren 30eko zirkularretan definitu zituen bezala.

Semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioa, bere horretan, 18/2008 Legearen 9.2. a) artikuluan sartu ahal izango balitz, aipatu prestazioa eragin duten pertsonen babeserako aurrerapauso handia ekarriko luke; izan ere, pertsona horiek prestazioaren titularrak izan ala ez gorabehera, horren hartzailak eta oinarria dira. Horregatik, pertsona horiek pensio osagarria eskuratu ahal izango balute, euren bizi kalitatea hobetuko litzateke, eta, horrekin, euren autonomia eta bizitza soziala sustatzeko aukerak areagotuko lirateke, eta laguntzeko produktu gehiago eta hobeak edukiko litzateke, eta abar.

Gizarte aurrerakoa solidarioa da kide zaurgarrienekin edo laguntza gehien behar dutenekin. Esku artean dugun kasuan, pertsona horienganako laguntza, aitortza eta begirunea ekarriko luke pensio osagarriak, bai gizartearen eskutik, oro har, bai botere publikoen eskutik, zehazki. Horrek talde berberaren zati direlako sententzia areagotuko lieke, bizitza osoagoa edukitzea erraztearekin batera.

³ Europar Batasunak Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutuna betetzearekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna betetzearekin, Urritasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena betetzearekin eta Europa 2020 Estrategia (eta horren tresnak) betetzearekin duen konpromisoaren baitakoa da estrategia hori.



Beraz, semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioa eragin duten pertsonak pentsioduntzat hartzeak, gogora dezagun, urritasun maila altua duten pertsonak dira-eta, independentzia ekonomiko handiagoa, bizitza autonomoagoa eta parte-hartze sozial handiagoa ekarriko lieke, ahal den neurrian, bai eta euren izaeraren garapen handiagoa ere. Era berean, euren urritasunaren ondoriozko gastu bereziei hobeto aurre egiten ahalbidetuko lieke (laguntzeko produktuak, aulki eta tresna bereziak eta abar), egoera horretan ez daudenek ez dauzkaten gastuak izaki.

Pertsona horiek, egunero-egunero, ahalegin handia egin behar izaten dute euren burua gizarteratzeko eta euren autonomia garatzeko. Erakunde honen iritziz, 147/2010 Dekretuaren 5.4. artikulua Enplegu eta Gizarte Politika Sailari ahalbidetzen dio bizikidetza-unitate eredu berriak definitzea, gizartearen garapenari erreparatuta, eta, bereziki, familia eredu berriei begiratuta. Bizikidetza-unitate berezi independentetzat jotzeak, dakartzan ondorio guztiekin, eta ez ekonomikoak bakarrik, baita laguntzaren gainekoak ere, kasu horretan, lanean txertatzeko laguntzak izaki, Urritasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena beteko luke, bai eta berau garatu duen gainerako araudi osoa ere, eta baita Urritasunari buruzko Europako Estrategian onartutako konpromisoak ere.

Testuinguru horretan, agerikoa da **gizartea garatu egin dela, eta norberaren bizikidetza-unitate definizioa justifikatzen dela**, pentsiodun gisa, "semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazioaren" eragileei dagokienez, 18 urtetik gora badituzte, eta urritasuna badute, prestazioaren titularra nor den gorabehera.

Horregatik guztiarengatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honakoa da luzatuko dugun

GOMENDIOA

Eusko Jaurlaritzak norberaren bizikidetza-unitate gisa **definitu** ditzala, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2. a) artikuluan sartutakoan antzera, eta aipatu legearen xederako, 18 urteak beteta dituzten eta % 65eko edo hortik gorako urritasuna duten pertsonak, eta, horregatik, "semea edo alaba ardurapean edukitzeagatiko prestazio" izendatutako familiako prestazio ekonomikoaren **eragileak** izan daitezela, **bai horren titular-onuradunak direnean, bai euren gurasoak edo tutoreak direnean titular-onuradunak, legez ezgaituta egotearen ondorioz.**

Diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa **eteteko eta iraungitzeko prozedurak berrikusi ditzala**, pentsio osagarri modalitatean, prestazioa aitortu zenetik egoera aldaketarik egon ez delako, **eta eskubideak adierazteko administrazio jarduerak ikuskatzeko ezarritako aurreikuspenak bete ez direlako**, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 102-106. artikulua.

